

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitza (Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.)
2. Sektorea:	Komunikabidea
3. Langile kopurua:	12
4. Webgunea:	https://busturialdea.hitza.eus/ https://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>33 herri, hamaika berri. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzako lantaldea komunikazio erronka berriei aurre egiteko prest dago paperean, Interneten zein sare sozialetan. Edukiak euskaraz jasotzea bermatu, eta eskualdeko eragile, elkarte, talde, instituzio eta norbanakoen informazioak lantzen ditu. 11Barri diseinu eta komunikazio enpresa du bidelagun.</p> <p style="text-align: center;">MISIOA</p> <p>Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA tokiko informazioa lantzen duen euskarazko komunikazio proiektua da. Talde dinamiko, profesionala, irekia eta parte hartzailea den heinean, eskualdeko eragileekin harreman zuzena mantentzen du eta herritarren bozgorailu da.</p> <p style="text-align: center;">IKUSKERA</p> <p>Tokiko komunikazio proiektu erreferentea izatea: Informazioaren kalitatearengatik / Bezeroei egokitutako produktuak sortu eta eskaintzeagatik/ Gizarteari egiten dion ekarpenagatik, elkar informatuz, elkar elikatuz eta elkar ulertuz. Horretarako, esperientziadun lan talde sendoa, egonkorra, bateratua, profesionala eta konprometitua izango gara.</p> <p style="text-align: center;">BALIOAK</p> <p>Plurala: Eduki eta sentsibiltate anitzak biltzeagatik.</p>

Orekatua: 33 herriei, eta horietan sortzen diren gaiei tratamendu beretsua emateagatik.

Independentea: Jardunean eta edukiak lantzerakoan irizpide propioa izateagatik.

Parte-hartzailea: Gure herrietan antolatzen diren ekimenetan inplikatzear gain, herritar, talde eta elkarteek ere gure proiektuan lekua dutelako. **Baterakoia:** Gure herrietako berri izatean, eskualdeak bateratzen laguntzen dugulako.

Euskaltzalea: Euskaraz jaio eta euskaraz bizi garen heinean, euskararen normalizazioan egunero eragin eta laguntzen dugulako.

Feminista: Egunerokotasunaren berri ematean ikuspuntu feminista txertatzeko ahalegin berezia egiten dugulako.

Profesionala: Curriculumetik harago, komunikazio proiektuko lantaldeak kazetaritzarekiko eta komunikazioarekiko begirune berezia dugulako. **Konprometitua:** Gure helburua herritik sortzen dena herriari kontatzea delako.

Harremanetarako datuak


Solaskidearen izen-abizenak:	Idurre Arrazola Astoreka
Helbide elektronikoa:	lh@hitza.eus
Telefonoa:	600 57 14 29

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara da lanerako erabiltzen dugun hizkuntza. Gailuak eta tresna digitalak euskaraz.
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Barne komunikaziorako, euskara baino ez dugu erabiltzen. Kanpo komunikazioan euskara da lehenengo erabiltzen dugun hizkuntza eta hizketakideak kontrakorik esan ezik euskaraz aritzen gara.</p> <p>Gure proiektua komunikazio proiektu bat den heinean, euskara- ren kalitatea bermatu behar dugu. Hori dela eta, lantaldeko partaideek C1 maila edukitzea ezinbestekoa da (edo baliokidea den ezagutza maila). Hori baldintzetako bat da pertsonen hautaketa prozesuetan. Adibidez gaztelaniaz heltzen zaizkigun curriculumak zuzenean baztertzeko ditugu.</p> <p>Gure hornitzaileen %90arekin euskaraz jarduten dugu, eta bezeroen %100arekin. Hortaz, hornitzaile eta bezero gehien-gehienak euskaraz aritzen dira gurekin harremanetan jartzean.</p> <p>Barne kudeaketarako dokumentu guztiak euskaraz sortzen dira. Eta lana euskaraz aurrera eramanez ahal izateko gailuetan eta tresna digitalak erabiltzerakoan ere euskara lehenesten dugu. Euskarazko bertsioa dagoen kasuetan, beti erabiltzen dugu:</p> <ul style="list-style-type: none">-Nabigatzaileak: Firefox, Safari...-Office tresnak-Posta elektronikoa kudeatzailea: Thunderbird-Faktura elektronikokoak egiteko programa: f4ktur-Mugikorrak: euskarazko bertsioak sortu ahala, haiek izaten dute lehentasuna.-Google kontuak eta dagozkion tresnak-Youtube-Webguneko egitura <p>-Beste batzuen webguneetara sartzen garenean euskara hizkuntza aukeratzen dugu aukera hori egonez gero.</p> <p>Zenbat eta gehiago erabili euskara teknologiarekin harremanetan, teknologia hori sortzen eta diseinatzen dutenek beharizan hori detektatzen dute, eta euskarazko zerbitzuen eskaintza handituz doa.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...


NABIGATZAILEAK



OFICCE tresnak




YOUTUBE




KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



MUGIKORRAK



POSTA KUDEATZAILEA: Thunderbird



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

WEBGUNEKO EGITURA

The screenshot shows a WordPress dashboard for the user 'Arbela'. The top navigation bar includes 'Busturialdeko Hitza', '+ Berria', 'Disqus', 'WP Mail SMTP', and 'Aupa...'. The left sidebar contains menu items: 'Arbela', 'Egitura', 'Bidalketak', 'Taxonomiak', 'Media', 'Iruzkinak', 'Agenda', 'Orrialde orokorrak', 'Publia', and 'Bannerrak'. The main content area features a 'WP Mail SMTP' widget with a line graph and a modal window titled 'View Detailed Email Stats'. The modal text reads: 'Automatically keep track of every email sent from your WordPress site and view valuable statistics right here in your dashboard.' Below this text is a blue button labeled 'Upgrade to WP Mail SMTP Pro'. To the right of the widget is a 'Zirriborro azkarra' (Quick Survey) form with fields for 'Izenburua' (Subject) and 'Edukia' (Content), and a 'Gorde zirriborroa' (Save survey) button.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA